



“MARRAZTU GOGOKOEN DUZUN IPUINA, VII. LEHIAKETA”

1. Parte-hartzaileak:

- Eguesibarren erroldatuta dauden 3 eta 13 urte bitarteko adingabe guztiak aurkeztu ahalko dira lehiaketara.
- Hiru kategoria ezarri dira: 3-5 urte, 6-8 urte eta 9-13 urte.

2. Marrazkiaren betekizunak:

- Marrazkiak parte-hartzailearen gustuko ipuinaren edo liburuaren edozein alderdi, pertsonaia edo eszena irudikatu beharko du.
- Aurkezten diren lanek originalak eta argitaratu gabeak izan beharko dute.
- Lehiakide bakoitzak obra bakarra aurkeztu ahal izanen du.
- Teknika guztiz librea izanen da, eta akuarelak, argizariak eta errotuladoreak erabili ahal izanen dira.
- Lehiakideek izena, helbidea eta telefonoa adierazi beharko dituzte.
- Marrazkiak DIN A-4 formatuan aurkeztu beharko dira.

3. Epeak:

Lehiaketan parte hartu nahi duten adingabeek apirilaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dute obra Olazko edo Sarrigurengo liburutegian.

4. Epaimahaia:

Epaimahaia Kultura zinegotziak eta Liburutegi zerbitzuko bi teknikari edo beraiek izendatutako ordezkariak osatuko dute.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da. Epaimahaiak beretzat gordetzen du lehiaketa eman gabe uzteko eskubidea, baldin eta, bere ustez, aurkeztutako lanek ez badute merezimendu nahikorik edo ez badatoz bat oinarri hauetan ezarritako baldintzekin.

Epaimahaiak beretzat gordetzen du oinarri hauetan aurreikusi gabe geldi litekeen edozein alderdi edo gorabehera ebazteko ahalmena.



5. Sariak:

Kategoria bakoitzeko hiru sari banatuko dira, bakoitza 35 euroko balioa duen erosketa baterako Eguesibarren dauden edozein liburu-dendetan trukatzeko: Eguzki ala Valletta.

Sari banaketa apirilaren 23an izango da, 19:00ak aldera, Udalak Liburuaren Egunaren harira Olatzeko Liburutegian antolatu duen emanaldiaren ostean.

6. Baldintza orokorrak:

Eguesibarko Udalak ikusten badu edozein parte-hartzailek lehiaketaren baldintzak betetzen ez dituela edo lehiaketa gaizki erabiltzen edo gehiegikeriaz erabiltzen ari dela, eskubidea izanen du hura baztertzeko.

7. Datu pertsonalen babesa:

Parte-hartzaileen tutoreek baimena ematen dute beren datu pertsonalak Eguesibarko Udalaren fitxategian sartzeko. Datuak lehiaketa hau kudeatzeko, irabazleekin harremanetan jartzeko eta lehiaketarekin zerikusia duen beste edozein gairi erantzuteko baizik ez dira erabiliko.

Parte-hartzaileen tutoreek beren informazio pertsonalaren egiazkotasuna, zehaztasuna, indarraldia eta benetakotasuna bermatu eta erantzunen dute.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubideak baliatzeko, idatzi bat bidali beharko da biblioteca-liburutegiaolaz@egues.es helbidera, NANaren edo identifikazio-agiriaren kopiaekin batera.

8. Eskubideen titulartasuna:

Saria onartutakoan, irabazleek Eguesibarko Udalari emanen dizkiote obrak ustiatzeko eskubideak, eta, zehazki, eskubide horiek erreproduzitzeko, banatzeko eta komunikazio publikoa egiteko eskubidea, edozein hedabideren bidez, besteak beste: material grafikoak, ikus-entzunezkoak, publizitatebitartekoak, Internet eta erabilera ez-komertzialetarako sare sozialak. Kasu guztietan, obraren egilearen izena jasoko da.

9. Beste arau batzuk:

Lehiaketa horietan parte hartze hutsak esan nahi du oinarri horiek osorik onartzen direla, eta Eguesibarko Udalak lehiaketa honetatik eratorritako edozein gairi buruz duen interpretazio-irizpidea onartzen dela. Beraz, lehiaketa honen oinarriak onartzen ez duen parte-hartzaile oro bazterturik geldituko da, eta, horren ondorioz, Eguesibarko Udalak ez du harekin inolako betebeharririk izanen.

Eguesibarko Udalak beretzat gordetzen du lehiaketa honen mekanikan edo funtzionamenduan edozein unetan aldaketak egiteko eta/edo alde zuzenetik lehiaketa bertan behera uzteko eskubidea, baldin eta bidezko arrazoi batengatik beharrezkoa bada. Hala ere, aldaketa horiek webgunearen bidez



AYUNTAMIENTO
VALLE DE EGÜÉS
EGUESIBARKO
UDALA



jakinaraziko dira behar bezala, eta, hala gertatzen bada, beste bide batzuen bidez. Ahal den guztia egingen da, ezein aldaketak parte-hartzaile batzuei kalte egin ez diezaien beste batzuen aldean.